

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 193. alea - 2015eko otsaila



**Paisaiak zuritu eta edertu  
egin dizkigu elurrak**






OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS**  
**Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



RPS: 183/12

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletelne.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN  
**Taberna**  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte gustuan zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afarak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefona: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte  
Erredakzio taldea eta  
kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,  
Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai,  
Lukax Dorronsoro, Izaro  
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite  
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider  
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane  
Aizpurua, Haika Aizpurua,  
Nekane Goikoetxea, Mattin  
Urbietia, Mikel Aizpurua,  
Debako Gazte Asanblada,  
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**

Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:**

Ander Salegi

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEA**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala



HIZKUNTZA, HIRIENGAIA KULTURA  
ETA JULTURAN SAIA  
Euskara Politikaren Erakundeak  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# aurkibidea

05-06

**Kolaborazioak: Ibon Urkia**  
("Jaiegunetan jai"),

**Debako Gazte Asanblada**  
("Debako gazteria")...

07

**IRUDITAN**

**Gure bazterrak ere zuri-zuri,**  
aspaldiko partez



Ander Salegi

08-09

**LITERATURAZ**

**Aitita-amamentzat idatzitako**  
gutunen lehiaketako

irabazleak



Ander Salegi

15

**KIROLOK**

**Txirrindularien lasterketak,**  
Anes Arrinda Haur Krosa,  
Lasturko Mendi Martxa  
Zirkuitua...



16-17

**ALBISTEAK**


**Eztabaida prozesua eta herri**  
galdeketa, hondakinak  
sailkatzeko sistema "guztion  
artean" erabaki ahal izateko



18

**ZERBITZUAK**





*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Zuhatza Euskara Elkartearen batzar orokorra martxoaren 3an izango da

*Zuhatzakide* agurgarria:

Lerro hauen bitartez urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2014. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke. Batzarra datorren martxoaren 3an (asteartea) egingo dugu, arratsaldeko 19:00etan, Zuhatzaren bulegoan (Ifar kalea 12, behean). Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika edo iradokizunen berri emateko Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83 telefono zenbakira deituta edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera idatzita).

Batzarrean 2014ko gestio-balantzea eta 2015erako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko ditugu (betiko legez, gal-

dera-erantzunentzako zein iradokizunentzako tarterik ere izango da). Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraitzea eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarteke bazkideen inplikazioa eta babesa.

2014. urterako aurreikusita zeuden ekimenak aurrera ateratzea lortu da, eta hori denon borondateari esker lortu da. Euskalgintzak bizi duen egoera ekonomikoa, ordea, ez da hain samurra. 2015ean ere lanean gogotsu eta ilusioz jarraitzeko asmoa dugu. Hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera. Ateak zabal-zabalik dituzu!

Besterik gabe, martxoaren 3ko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

*Zuhatza Euskara Elkartea*

## “Etxebizitza eskubidea bermatzeko etxe hutsen gaineko presio soziala premiazkoa da”

Elkartzenek behin eta berriz azpimarratu du herritar sektore zabalek etxebizitzara sarbide izateko pairatzen dugun bazterkeria. Bereziki larria dena, lan merkatuan egoera prekarioena bizi dugunon artean (gazteok, emakumeok eta pertsona migratzaileak). Gaur egun Euskal Herriko biztanleriaren pobretze faktore nagusienetako bat bilakatzeraino.

Baina arazo hau ez da indibiduala, kolektiboa eta globala baizik. Gure herrian aspaldi ezarri zen eredu kapitalistaren ondorio zuzena, alegia.

**Nondik dator arazoa?** Etxebizitza erabilera eskubide gisa ez onartzetik. Etxebizitza duin baterako erabilpen eskubidea dugu. Hori da administrazio publikoek bermatu behar dutena eta bermatzen ez dutena. Eraikitzaile, higiezin eta bankaren interesei men eginez, etxebizitza eskubidea negozio bihurtu dute.

Egoera larria ez balitz, denbora luzez jendartea ere, kontziente edo inkontzienteki, jendartearen beste zati handi baten beharraz baliatu da. Etxebizitza inbertsio bezala ulertuz eta ez eskubide bezala.

**Zer egin behar da?** Euskal Herrian dauden milaka eta milaka etxebizitza hutsen erabilpena bermatzea. 250.000 etxebizitza huts edota azpierzabiltzaile daude 2011n Gaindegia ([www.datuak.net/group/etxebizitza](http://www.datuak.net/group/etxebizitza)) kaleratutako datuen arabera. Deban, INEK kaleratzen dituen datu ofizialen arabera, 2.913 etxebizitza daude guztira; horietatik 2.173 etxebizitza nagusiak dira, beraz 740 etxebizitza hutsik edo azpierzabiltzaileak daude, hau da, etxebizitzaren %25,41. Etxebizitza hutsen edota azpierzabiltzaile kopuru hau eskualdeko altuena da. Zehazki 459 etxebizitza bigarren etxebizitzak edota azpierzabiltzaileak dira eta 281 etxebizitza hutsik daude (iturria: [Gaindegia.org](http://Gaindegia.org)). Ordua da egoera hau aldatzeko,

jabetza pribatua ezin da inolaz eskubide sozialen gainetik egon. Etxebizitza, eskubide soziala da eta, honenbestez, merkatuaren logikatik kanpo egon behar da.

**Nola?** Alokairu sozialerako etxebizitza parke publiko bat sortuz. Alokairu sozialaren ordaina, maizterren diru sarreren %15era mugatuz. Parkea, administrazio publikoak gestio-natuko luke, betiere jendartearen parte-hartzea bermatuz eta baita haren kontrol publikoa ere. Lehenbizi, edozein instituzio publikoren, bankaren, elizaren, ejertzitoaren eta abarren etxe hutsak parkea osatzera pasatuko lirakeke. Eta baita funtzio soziala larriki urratzen duten jabetza pribatuko etxe hutsak ere.

**Ezin da negoziarik egin eskubide sozialen kontura.** Ezinbestekoa da etxe hutsen gaineko presio soziala aktibatzea. Beste biderik ez dugu etxebizitzaren arazoa konpontzeko. Herriz herri eta auzoz auzo, etxebizitza eskuratzeko ezintasunaren benetako arazoa zein den sozializatu. Lan hori burutzeria bidean, Elkartzenek bere ekarpen xumea egin nahi du, etxe hutsen markaketa kanpaina bati hasiera emanez. Kontzientziak astindu nahi ditugu, egungo jokabide eta baloreak aldatu. Bide horretan, herritarrak antolatzea eta eskubide sozialen alde borrokatzea animatu nahi ditugu. Bereziki, etxe hutsen gaineko presio sozial handi bat

aktibatzea gonbidatzen zaituztegu. Ez dugu ezer galtzeko...

Antolatu gaitezen gure eskubideen alde!!!

Etxebizitza eskubidea denontzat!!!

Etxebizitza hutsik ez!!!

Euskal Herrian, 2015-01-21



*Elkartzen*



# IBON URKIA

## JAIEGUNETAN JAI

Urte zaharraren eta berriaren arteko muga negua hasi besterik egin ez denean kokatzeak ez dirudi, itxura batean, oso naturala. Gure inguruko zuhaitzi eta landaredia uzkurthurik, hartzak lozorro betean, bizidun oro ari da bizitzaren ziklo berrirako indarrak metatzen. Ekialdeko urruneko beste kultura batzuetan, ordea, martxoaren amaiera aldera ospatzen dute urte berriaren hasiera, gizakiok izadiari gagozkionez, halabeharrez.

Urterokotasunari erreparaturaz, gurera etorrita, Bidasoaz hegoaldera bizi garenok jaiegun bakarra daukagu nazioarteak onetsia, hala nola maiatzaren lehena. Gainontzeko denak, salbuespenik gabe, santuak ala espainiarrak.

Badugu, halaber, bizkaitar zein gipuzkoarrok jaiegun esanguratsu bat uztailaren azken egunean ezarria, Loiolako Inazio gure patroia handiari eskainia, zeina Nafarroako erresumaren aurka, gaztelarrekin bat eginik, Iruñeko setioan hankamotz bihurtu zuten. Egungo unionisten aitzindari?

Elizak erdipurdika fededunez betetzeko arazoak dituzte batzuek. Garai berriotan ezer berririk eskaintzen ez duten unionistak, berriz, gainbeheran. Azkenaldian erreferendum eta gal-

deketa saioek duten oihartzuna ikusita, balegoke nahikoa motibo guztioi eragiten diguten halako kontuetarako.

Ur txikitatik sakonagoetara igarotzekotan zenbait iradokizun mahaigaineratzea interesgarria litzateke. Esate baterako, Debatik “todo por la patriakoek” alde egin zuten eguna.

Batikanoko iturritik edaten duten hainbeste santuren ordeze baleudeke hamaika arrazoi, gurean, jaieguna ospatzeko.

Paperetan behinik behin ofiziala omen dela dioen gure jatorrizko hizkuntzaren eguna.

Europako luze-zabalean oso herri gutxi du, egun, bizirik dirauen eta halako ibilia izan duen hizkuntzarik. Mereziko luke, bada, jaiegun ofizialik, ala?

Ia egunero esaten zaigu hedabideetan badakit zeren aurkako ala ez dakit zeren aldeko nazioarteko eguna dela.

Bihar, astearte ilunabarretan ezkerreko belarri atzean azkura jasangarria pairatzen dutenen aldeko eguna.

Harrapazank!!

Berandu baino lehen bizilagun izango ditugun espainolekin elkarlanean ere proposa genieziaieke beste jaiegunik, hots, soldadu artean tximukeriak eginez ia urtebetez ibiltzeak derrigorezko izateari utzi zion eguna.







## Debako gazteria

Zein da gaur egungo gazteon etorkizuna? Eta nolakoa da? Nire ustez, errealista izanez gero, gure etorkizuna nahiko iluna da, ilunegia dela ez esatearren. Iluntasun hori hainbat arazotatik dator; ekonomia txarra, iruzur ugari... Honetaz denok ohartzen gara, baina nork egiten du zerbait hau saihestearren? Egia da gure etorkizuna ez dagoela gure eskuetan bakarrik, baina honekin esan nahi dudana hau da: Non dago hemen inguruko gazteria? Eta batez ere, non dago Debako gazteria?

Debako gazteria nahiko desaktibatuta dago, eta hori hainbat faktoreren ondorio da: kontzientzia eza, teknologia berriak...

Gure herrian, dirudienez, denak edo gehienak gara euskaldunak, eta harro gaude hortaz; baina nork hitz egiten du euskaraz? Nik uste dut Deban gero eta gutxiago hitz egiten dela euskaraz, eta ez gazteetan bakarrik, umeetan eta helduetan ere. Herritar askok, nahiz eta beraiek ez onartu, gazteleraz hitz egiten dute nagusiago edo helduago sentitzen direlako. Egoera honi buelta ematea ez da batere erraza, baina beharrezkoa da; euskara baita gure hizkuntza.

Gaztetxeak ere, zorionez, bizirik jarraitzen du; baina ez orokorrean Debako gazteriak egiten duen ahaleginarengatik. Denak daude gaztetxera joateko prest alkohola edo parranda direnean bitarteko, baina antzekorik ez bada, gazte gutxi hurbiltzen da gaztetxera. Gazte Asanblada ere gogor ari da lanean, baina ez da oso handia herriko gazteon partaide-tza, beraz, badakizue: ostiraleroko gaueko 10:00etako asanbladara gonbidatuta zaudete, bertan ongi etorriak izango dira zuen ideiak!

Teknologia berriekin ere, gazteria tontotzen ari da. Gazte askoren ardura handiena, koadrilako mobilik handiena eta garestiena edukitzea da; eta eguna mobilaren eta telebistaren pantailen aurrean pasatzen dute. Batzuek, droga bat bezala kontsideratzen dituzte mobilak, eta horiekin erabat ados nago; aparatu hau bost minutuan poltsikotik atera gabe edukitzea erronka handi bat baita askorentzat.

Beste hainbat arazo ere badaude, baina zaila da denak aipatzea. Beraz, badakizue: **esna zaitetzte!**

*Ekaitz Zubimendi*



## Karibeko arrantzale bat

Karibeko arrantzaleak goizean goiz egunero itsasora arrantza egitera irteten ziren. Eguerdian ontziak arrainez beteta zituztela itzultzen ziren eta gainera azkar saltzen zituzten. Arratsaldean beraien emazteekin "hamakan" siesta egiten zuten, gero lagunen artean futboleko jokatzeko zuten eta egaria kentzeko palmondora igotzen ziren kokoak hartzera.

Herri horretan Ipar Amerikako turista bat oporretan zegoen eta haren "Paradisuan" ez zuen ulertzen zergatik ziren hain pobreak arrantzaleen familiak; beraien etxean gauza gutxi zegoen eta tresna modernorik ez.

Horregatik, oporrak amaitu baino lehen, arrantzale bati galdetu zion:

- "Zergatik ez duzu egun osoa lan egiten? Diru asko irabaziko duzu eta tresna modernoak etxean sartuko dituzu, sukalde zaharra kenduko duzu eta elektrikoak ipini, eta jubilatzen zarenean oso ondo biziko zara. Ni orain New Yorkera joango naiz, egunero 12 orduz egingo dut lan, urtean zehar bi astez oporrak edukiko ditut eta, zahartzerako, aberatsa izango naiz eta zeuen herrira etorriko naiz jubilatuta".

Arrantzaleak turistari zera esan zion:



- "Zuk zeure bizi osoa lan egiten pasa duzu, eta zertarako? Ni orain bizi naizen bezala bizitzeko. Zertarako egingo dut lan gehiago?"

*Jose Luis Albizu*

## Gure bazterrak ere zuri-zuri, aspaldiko partez



Ander Salegi



Ander Salegi



Ander Salegi



Ander Salegi



Jose Luis Albizu



Gorka Agirrezabala

## Inauterietan murgilduta



Berriketan aldizkariaren ale hau inprentara bidean generamanean, inauterietan murgilduta jarraitzen genuen oraindik ere. Hori dela eta, aurtengo jai honetako irudiren bat jaso ahal izan dugu otsaileko ale honetan. Ezin urtero bezala irudi-bilduma handiago bat osatu, ordea.



Hilaren 13tik 17a bitarteko egitaraua antolatu zen herrian: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, mozorro lehiaketak, musika, haurrentzako enbolatuak eta poniak, txokolatada... Gogoia edukita, mozorroa jantzi eta ekimen ezberdinetan parte hartzeko aukerarik ez zen falta izan.



# Literatur lanak aitita-amamentzat

Hirurogei bat lan aurkeztu dituzte Arbil Elkarteak antolatutako lehiaketara



Ander Salegi

Benetan atseginez irakurri dituzte lantxoak. Bakoitzak badu bere xarma, bere izaera berezia, idazlearen nortasuna adierazten duena. Lan guztiek zaindu dituzte ondo samar gramatika arau ortografikoak eta sintaxiarenak, hitzari eta esaldien joskerari dagozkienak alegia. Beraz, zuen idazlan guztiak onak direla aitortu behar.

Hala ere, idazleak, aukeratu duen istorioa idaztera bultzatu duten sententzioak irakurleari transmititzea lortu badu, beste balio bat hartzen du idazlanak.

Ba, begira, maila honetako lanak irakurtzeko ere aukera aurkitu dituzte zorionez zuen lantxoetan.

Ez baita berdin, "2009ko martxoaren 31n hil zen gure aitona" esatea, edo "...Lotan nengoela gurasoak nire

nebaren gelara sartu ziren negarrez; ondoren nirera. Ni beldurtuta eta urduri nengoen, ea zer esaten zidaten, zeren eta denak negarrez zeuden. ... Zu ez zaude-netik ez da berdina amonak emandako txokolatea jatea, aitona".

Ez da berdin, "Maite dut aitona" esatea, edo "Egun zoragarri batean... lehenbizi ikusi dudana 3 urteko umetxo bat izan da bere aitonari eskutik helduta. ..., ni txikitan bezala. Betidanik Uxu deitzen dit; beti bere txikia izango naizela adierazi nahi du: Kaixo Uxu, zer moduz zabilta? ... Ez dakit zer egingo dudan hori entzuten ez dudanean...".

Ez da berdin, "Gogoan dut amona" esatea, edo "...Amona, gure artetik joan zinenean, lau urte besterik ez nituen... Argazki bat bakarrik daukat zurekin, baina altxor bat balitz bezala

zainduko dut, altxor bat delako, zu bezala, nire altxorra, ...".

Ez da berdin, "Maite genuen amona" esan, edo "...Zortea izan zuen aitona zu topatu zintuelako. Hark nik bezala maite zintuen. Beti zure ondoan egon zen, zure azken segundora arte, zure azken hitzeraino".

Zuen lanetatik atera dituzdan adibideak dira. Hiru aukeratzeko esan didate, eta honako hauek aukeratu dituzte, asko kostata, azkenean:

Intza Suduperen "FALTAN BOTATZEN ZAITUT AMAMA"; Maria Perezen "2014KO ABENDUAREN 8A"; eta Uxue Egañaren "AITONA ETA AMONA".

Zorionak!!!

Lukax Dorronsoro

## Aitona eta amona

Egun zoragarri batean, goizean etetik irtetean, lehendabizi ikusi dudana 3 urteko umetxo bat izan da, bere aitona, seguru nago bere aitona dela, eskutik helduta. Umea ari zaio esaten:

-Aitona, estuegi heltzen didazu eskutik!

Eta aitona, irribarrea aurpegia- ren alde batetik bestera duela, musu bat eman dio. Niri ere egiten zidan hori, ez dakit zergatik, askotan berarekin haserretzen nintzen hori egitean, baina segundo batera, ez gehiagora, berriro barrez algaraka hasten ginen.

Betidanik Uxu deitzen dit, nire izenez deitu beharrean. Niretzat, beti bere txikia izango naizela adierazi nahi du. Berarengana joaten naizenean, oraindik ere, beste mutiko horrek bezala, 3 urte ditudala sentitzen dut, gainera txikitako abestiak kantatzen dizkit:

-Astoak ziren, txiki-txikiak atsoak berriz, kristonak, nola demontre konpontzen ziren zazpi astoren gainean...

Bere baserrira joaten naizen bakoitzean nire zain egoten da, makila bat eskuan duela eta txapel beltza buruan. Ongietorri bikaina egiten dit beti, eta noski, nik berari. Joaten naizen bakoitzean haxe esaten dit:

-Kaixo, Uxu, aspaldiko! Zer moduz zabilta?

Azkenean, gauza arrunt bat da, baina norberarentzat ez, ez dakit zer egingo dudan hori entzuten ez dudanean.

Gero parkera joan naiz, eta neskatok bat zegoen amonaren mantalean negarrez. Amona kantatzen ari zitzaien:

-Haurtxo txikia sehaskan dago zapi txuritan txit bero

amonak dio, ene potxolo egizu lo-o-o-o ...

Eta neskatxoari bi begitxoak ixten zitzaizkien konturatu gabe. Ni ere, txikitan horrela egoten nintzen. Orain gutxiago egoten naizenez, faltan botatzen dut. Amona ere oso berezia da niretzat, gaixorik nagoenean, triste nagoenean, berarengana joaten naiz, konprenitu egiten bainau, eta besarkada goxo eta txokolatezko muxuak ematen dizkit.

Nire aitona-amona maiteak zarete eta hori ez da inoiz aldatuko. Zuekin igarotako denbora labur, luze, polit eta goxoa ez du inoiz ahaztuko. Nire uharte galduan ezkutatuta geratuko den altxorrik preziatuena.

Zuen bilobatxo Uxu

Uxue Egaña





## Faltan botatzen zaitut amama

Kaixo, amama:

Zure biloba naiz. Idazlan bat egin behar genuen eta nik zuri gutun bat egitea pentsatu dut. Badakit igual irakurriko duzula eta igual ez; baina poza ematen dit gutun bat egi-teak, zuri buruz, familiari buruz...

Gure artetik joan zinenean lau urte besterik ez nituen gutxi gorabehera, ez nintzen konturatzen zer gertatzen zen nire alboan.

Nire ahizpak, berriz, bi urte besterik ez zituen eta bera ere ez zen konturatzen gertatzen zenaz eta zutaz ez da oroitzen.

Baina gauza batez bai konturatu nintzela eta gogorazten naizela: zerura joan zinenean familiako denak negarrez egon zirela, egunak, gauak, asteak, hilabeteak... Horrek gauza garrantzitsu bat esan nahi du, gazteleraz esaten den bezala: *"el que pisa fuerte deja huella"*. Zuk egin zeniguna: fuerte zapaldu zenuen familia aurrera eramaten, bultzatzen; eta, egin zenuen denagatik, arrastoa utzi zenuen, arrasto bat familiako denak bihotzearan daukatena eta edukiko dutena.

Gabonetan gertatu zen dena. Esaten dute Gabonak familiarekin egoteko direla, algaraka, jolasean, hitz egiten... Baina ez negarrez egoteko.

Denok faltan botatzen zaitugu, leku batera joatean... nahiz eta nire gurasoek eta besteek ez esan, igarri egiten da. Batez ere igartzten dugu Santa Maria del Rio-ra joaten garenean: aitxitxe, aita, ama, June, Tia Henar eta ni neu. Bertan bizi zinelako, nahiz eta pentsamendu gogorak etorri burura, ondo etortzen da familiarekin elkartzea eta pentsamendu gogorak elkarrekin aurrera eramatea.

Gainera, han zure ahizpa eta lagunak bizi dira eta elkarrekin egoten gara. Esan nahi dizudana da nahiz eta gure alboan ez egon berdin-berdin faltan botatzen zaitugula.

Asko sufritu zenuen, arazo asko eduki zenituen eta atsedena behar zenuen, eta atsedeen gehien edukiko zenuen leku batera joan zinen.

Ez naiz kexatzen, lau urte pasatu nituen zurekin, eta beste batzuek ez dutelako ezta ezagutu beraien amama eta beraien aitona ere ez.

Bueno ba bukatzen ari naiz. Argazki bat bakarrik daukat zurekin baina altxor bat balitz bezala zainduko dut, altxor bat delako, zu bezala, nire altxorra.

Inork ez bezala maite zaitut amama, familiako besteok bezala. Ez dakit ikusten egongo zaren edo ez, baina ni pozik gelditu naiz pentsatzen dudana dena idatzi dudalako. Lehenengo aldia da horri buruz idazten dudana, egia esan, kostatu zait. Eta esan nahi nizuke hau ere: ez sentitzeko inoiz bakarrik, gu hor egongo garela.

Maite zaitut amama.

Intza Sodupe

## 2014ko abenduaren 8a

Kaixo, aitxitxa!

Zer moduz hortik? Gu hemen primeran gaude, baina zu falta zarela nabaritzen da.

Gogoan dut oraindik ere, 2009ko martxoaren 31ko goiz triste hura. Ni lotan nengoela, nire gurasoak Ibairen gelara (nire nebaren gelara) sartu ziren, negarrez. Ondoren nire gelara. Ni beldurtuta eta urduri nengoen ea zer esaten zidaten, zeren eta denak negarrez zeuden.

Ibai ere negarrez zegoen, eta niri esan zidatenean negarrez hasi nintzen eta orduan gogoratzen hasi nintzen elkarrekin egiten eta egoten ginen momentuak. Batez ere, zure etxera joan, eta amama bazkaria edo afaria prestatzen zegoenean, txokolate, bonboi edo turroi zatiak hartzen genituenean. Baina zu ez zaudenetik ez da berdina txokolatea jatea.

2012ko abenduaren 16an, amama Vicentari iktus batek eman zion.

Odola meningearan alboan geratu zitzaion eta oreka galdu zuen eta ezkerreko alde guztia mugitu ezinik geratu zen.

Orain ondo dago eta batzuetan bakarrik ibiltzen denean (laguntzarik gabe, noski) aitak errieta egiten dio, erori egin ahal delako, baina nik animatu egiten dut ibiltzera.

Gaur zurekin amestu dut eta oso amets ona izan da. Batez ere zu irten zarelako. Baina bukaera ezin izan dut ikusi, amak esnatu egin bainau, Ibairi oparia emateko, gaur bere urteak direlako.

Orain Valdepeñasako familiarekin egoteko denbora ugari edukiko duzu, ezta?

Tio Manuel eta Abuelita ikusten badituzu muxu bat eman nire partetik.

Bueno joan egin behar dut, muxu handi pila bat.

Idatzi iezadazu.


Maria Pérez

## Euskal Memoriako Iñaki Egañaren hitzaldia, martxoaren 11n

“Estatu arrazoi diren auziak Estatuak manipula egin ditzake, noski, eta batzuetan hark manipulaturiko auziok itxura batean garrantzirik izan ez badute ere, gauzen logika aldarazten laguntzen dute. Beraz, Estatu jakin horrek gobernatzen duen gizartearen barne-logika ere aldarazten dute. Hala bada, esan litekeena da informazioa manipulatzeko, salbuespenezko legeak ebaztea, errealtatea bere erroetatik urrunaraztea, espioitza masiboki egitea, naturalak ez diren gatazkak eragitea eta horiek bezalako kontzeptu zenbait abstraktuak edo lausoak direla. Bai, agian. Beste zenbait, berriz, askoz ere argiagoak eta zehatzagoak dira. Hala nola, torturatzea, mehatxatzea, aurkari politikoa desagerraraztea”.

Iñaki Egañaren hitzak dira “Deklaratu gabeko gerra - Estatu terrorismoa Euskal Herrian” idatzitakoak, Euskal Memoria Fundazioak atera berri duen bosgarren liburuan.

Debara datorkigu gai honen



**Noiz:** martxoaren 11n (asteazkena)  
**Non:** Agirre Jauregian, ispiluen gelan  
**Ordua:** arratsaldeko 7etan

inguruan elkarrekin solasaldia izan dezagun.

## Udalak eta Cárdenas Fundazioak antolatutako II. literatur lehiaketa

Debako Udalak eta Cárdenas Fundazioak elkarlanean antolatu dute literatur lehiaketaren bigarren edizioa. Euskarazko eta gaztelaniazko lanak aurkez daitezke lehiaketara, martxoaren 31a baino lehen, eta hizkuntza bakoitzeko bi sari banatuko dituzte: 500 eurokoa lehenengoa eta 200 eurokoa bigarrena.

Deba ibaiarekin, edota bere historia zein paisaiarekin zerikusia duen gaia hartu behar dute oinarri parte-hartzaileek, eta idazlanek ez dute 100 hitz baino gehiago izan behar. Deialdian edonork har dezake parte eta lehiaketarako epaimahaia kultur zinegotziak aukeratutako pertsonez osatuta egongo da. Lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira gero; hau da, Udalaren eta Cárdenas Fundazioaren eskuetan, eta horiek izango dituzte erreproduzio eta hedapen eskubideak.

Lehiaketaren oinarriak bere osotasunean kontsultatu ahal izateko [www.deba.net](http://www.deba.net) atarira jo dezakete interesa dutenek.


## Abian da Zubeltzu bertso paper sariketaren seigarren edizioa

Abian da ZUBELTZU bertso paper sariketaren seigarren edizioa. Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen arteko ekimen honek, hiru maila bereizten ditu: LHko neska-mutilak (2003an jaiotakoak edo gazteagoak), DBHkoak (1999-2002an jaiotakoak) eta nagusiak (1998koak eta zaharragoak). Maila bakoitzari ariketa ezberdina egitea eskatzen zaio; lehenengo bietan gaia jarrita eta helduenean, berriz, libre lagata.

Sariketa Debako eta Itziarko herritarrentzat antolatu da eta bertsoek jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon

saritu gabeak izan beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 27a izango da. Horiek Debako Udaletxean edota Zuhatza Euskara Elkartearen entregatu ahal izango dira, esan bezala, data hori baino lehen. Lanak euskarri telematikoa entregatzea eskertuko da (CD, pendrive edo mezu elektronikoa bidez), oinarrietan agertzen diren helbideetakoaren batean. Oinarriak [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian kontsulta daitezke.

Sari banaketa ekitaldia apirilaren 17an egingo da, iluntzeko 19:00etan, Agirre jauregiko ispiluen gelan.





## Nola ospatzen ditugu inauteriak? Zer dakigu festa hauen jatorriaz?

Inauteriak bereziki Europan eta Amerikako hiri eta herrietan neguaren bukaera aldera jendeak mozturorik ospatzen dituen jaiak dira, desfileak eginez edota besterik gabe jai-giroan murgilduz, kantuz, dantzan eta zarata eginez. Inauterien ezaugarri berezia da, beste jaiekin alderatuta, umore, parodia eta satira giroa, gizarte ordena urratu eta alderantzikatzen duena. Historikoki, kristautasunaren tradizioetik abiatzen diren jaiak dira, baraua eta beste zenbait gabetze dakartzan Garizumaren aurretik ospatzen baitira, baina antzinako paganismoan daude sustraiturik, negua amaitu eta udaberria hasteari loturik.

### Inauteriak Euskal Herrian:

Euskal Herriko inauterietan antzinako tradizioari atxiki, bereziki herri txikietan, nahiz hiri eta herrietan ospatzen diren inauteriak daude. Toki batetik bestera egun desberdinetan ospatzen dira: Zubietan eta Iturenen urtarileko azkeneko igandearen osteko lehen astelehenean eta asteartean izaten dira; Tolosako inauteriak inauterien ohiko egunetan ospatzen dira, Ostegun Gizen egunetik astearte egunera arte, hausterre-egunaren bezperan; azkenik, Algortan, Plentzian, Santutxun eta Errenterian, besteak beste, Piñatoko inauteriak ospatzen dira, ohiko inauterien ondorengo hurrengo asteburuan.

### Jatorria:

Inauteri izena "inausi" aditzari loturik bide dago, arbolak inausteko garaia, alegia. Aratuste izenak, berriz, haragia jateari utzi behar zaion garaia du aipagai. Zaratarekin hartza bere kobazulotik aterarazi, udaberriaren seinale moduan, eta zomorroak uxatzearekin lotu izan da, baratze eta soroen emankortasunaren alde. Esaterako, Sakanako inauterietan (Olaztin) simaurra botatzen da gurdi batetik; Altsasuko momotxorroek goldea erabiltzen dute lurra esnatzeko; eta Ituren eta Zubietako joaldunek erritmozko zarata egiten dute bizkarrean daramatzaten joareekin, tunturroa (kapela konikoa) buruan dutela, ardi larrua soinean.



Ander Salegi





# ELKA RRIZ KETA

## Deban ezin jokatuta, Zumaiara joan zaizkigu futbolariak



Oraingoan, aurten Debako Amaiak-Bat Futbol Taldean jokatu ezin izan duten jokalariei elkarrizketa egitea pentsatu dugu. Maialen Izeta (M.I), Ane Arrizabalaga (A.A.I), Ane Agirregabiria (A.A.A), Paula Arregi (P.A) eta Itsaso Iciar (I.I) elkarrizketatu ditugu. Hona hemen galdera-erantzunak:

**Zer taldetan jokatzen duzue orain futbolean? Zergatik?**

**Denek:** Zumaiako Futbol Taldean. Deban ezin izan genuenez taldea sortu, Zumaiakora joan behar izan ginen.

**Gustura al zaudete oraingo talde berriarekin?**

**Denek:** Bai. Oso ondo hartu gaituzte, oso jatorrak dira.

**Nolako izan da harrera?**

**M.I:** Oso ona. Lehenengo momentutik oso ondo hartu gintuzten.

**A.A.I:** Ona.

**A.A.A:** Lehenengo momentutik oso ondo hartu gintuzten. Ez dugu inolako arazorik izan.

**P.A:** Oso ona.

**I.I:** Oso ona. Besoak zabalik hartu gaituzte eta taldeko beste edozein bezala sentitzen gara.

**Hurrengo urtera begira zer asmo duzue?**

**M.I:** Oraindik ez dakit. Deban taldea ateratzen bada

Debara etorriko naiz, bestela Zumaiara jokatzen jarraituko dut.

**A.A.I:** Oraindik ez dakit, denboraldi amaieran ikusiko da.

**A.A.A:** Oraindik asko falta da horretarako, baina hitz egingo genuke eta Amaiak-Batera itzuli nahiko nuke.

**P.A:** Ez dakit oraindik.

**I.I:** Hori ikusteko dago, baina ziurrenik Zumaiakon jokatzen jarraitzeko asmoa dut.

**Zer iritzi duzue honetaz guztiaz?**

**M.I:** Pena handia hartu nuen Deban taldea ez zelako sortu, baina Zumaiakoko jendeak oso ondo onartu gaitu.

**A.A.I:** Ez dakit, pozik nago.

**A.A.A:** Pena handia Deban taldea ez zelako sortu, baina ez dago beste aukerarik.

**P.A:** Ez dut iritzirik.

**I.I:** Hasieran ez zitzaidan oso ondo iruditu, baina tira, bukaeran ez geneukan beste irtenbiderik. Orain ligan ondo goaz eta pozik gaude.



# INAUTERIAK HIZPIDE

Hilabete honetan inauterien inguruan aritu gara ikasleekin. Hona hemen egin dizkiegun galderak eta jasotako erantzunak:

- 1.- Gustuko al dituzu inauteriak?
- 2.- Zer mozorro jantzi duzu?
- 3.- Lagunekin ala bakarrik mozorrotu zara?
- 4.- Mozorroa zenbat egunetan jantzi duzu?
- 5.- Mozorroa egin ala erosi egin duzu aurten?
- 6.- Deban pasa al dituzu inauteriak?



## INKESTA



### Maria Gonzalez:

- 1.- Bai.
- 2.- Hippiaren mozorroa.
- 3.- Lagunekin mozorrotu naiz.
- 4.- Bi egunetan.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai, Deban.



### Irati Aznal:

- 1.- Bai.
- 2.- Mosketeraren mozorroa.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Bi egunetan.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai, Deban.



### Isoken Ebowe:

- 1.- Bai.
- 2.- Zonbiaren mozorroa.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Egun bakar batean.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai.



### Eneko Arriola:

- 1.- Bai.
- 2.- Indioaren mozorroa.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Hiru egunetan.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai.



### Jon Txurruka:

- 1.- Bai.
- 2.- Tebistako mandoarena.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Egun guztietan.
- 5.- Egin.
- 6.- Bai, baina Erromara noa.



### Julen Ayastui:

- 1.- Bai.
- 2.- Animatzailearen mozorroa.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Hiru egunetan.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai, Deban.



### Irati Arrazua:

- 1.- Bai.
- 2.- Minniaren mozorroa.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Bi egunetan.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai, Deban.




### Arantxa Odriozola:

- 1.- Bai.
- 2.- Pailazoarena.
- 3.- Lagunekin.
- 4.- Bi egunetan.
- 5.- Erosi egin dut.
- 6.- Bai.




# DenBord-pasaak

## LABIRINTOA



## LOTU ZENBAKIAK



## KOLOREZTATU



EGILEAK: Sara Goikoetxea eta Paola Inurrieta

LAGUNTZAILEAK:

BABESLEAK:



Debako Udala



PROTSA TALERRA 2014-2015

- |                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| Maitte Iglesias   | Itsaso Iciar       |
| Leire Amesti      | Naia Agirregabiria |
| Maialen Beristain | Paola Inurrieta    |
| Sara Goikoetxea   | Olatz Irusta       |
| Janire Salegi     | Aiora Zubizaray    |

Koordinatzailea: Joseba Agirreoa



## Laster jokatuko dira txirrindularien lasterketak



Amaikak Bat Txirrindulari Taldea buru-belarri dabil martxoan eta apirilean antolatuko diren hiru hitzorduak prestatzen. Taldeak jakinarazi duenaren arabera, aurten, beste urteetan ez bezala, gaztetxoena izango da jokatuko diren hiru lasterketatik lehenbizikoa. Hortaz, azken orduko aldaketarik ez badago, martxoaren 7an (larunbata) XXVII. Deba Saria-kadete maila jokatu da. 52 kilometroko lasterketa izango da, eta goizeko 10:45ean emango zaio hasiera.

Martxoaren 28an (larunbata), XLII. Amaikak-Bat Saria (junior maila) egingo da. 10:15ean abiatuko dira txirrindulariak eta 86 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Eta apirilera antolatu da, azkenik, XXIII. Debako Bira-Zikloturista maila. Hitzordua apirilaren 19ean (igandea) izango da.

*Amaikak Bat Deba Txirrindulari Taldea*

## Debako Anes Arrinda Haur Krosa martxoaren 21ean ospatuko da



Datorren martxoaren 21ean (larunbata) izango da XLVII. Anes Arrinda Haur Krosa. Aurten ere, iazkoari jarraituz, 5 urtetik 16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduko zaie parte hartzeko gonbitea. HH eta LHkoen kasuan, adinka egingo dituzte lasterketak, eta bakoitzak bere zirkuitua izango du. DBHkoen kasuan, berriz, erreleboak egingo dituzte taldean.

Aurreko edizioan izan zuen partaidetza arrakastatsuen ondoren (ia 300 lagunek eman baitzuten izena) aurten ere horretara iritsi nahiko guke. Gogorazi denoi, partaide guztien artean hainbat sari zozketatuko direla: museo-etarako sarrerak, loteak, kirol desberdinetarako sarrerak... Hala ere, guztiek izango dute mokadutxo bat jateko aukera lasterketaren ostean.

Aurtengo berrikuntza bezala, esan dominaren ordez, oroigarri bezala, partaide bakoitzak egin duen lasterketako kideekin ateratako argazki bat izango duela. Horretarako, hurrengo egunetan eskolan banatuko zaio bere argazkia ikasle bakoitzari. Lasterketan parte hartzeko, Luzaro eta Mendata eskoletan izango dute aukera otsailaren bukaera aldera. Beraz, animatu eta parte hartu gure krosetan. Bide batez, nahi duten guztiak gonbidatuta daude egunean bertan antolaketan laguntza emateko, beharrezkoa izango dugu eta. Hala izanez gero, idatzi korreo bat [debakrossa@hotmail.com](mailto:debakrossa@hotmail.com) helbidera.

Krosaren inguruko informazio eta jarraibide guztien berri gure webgunean izango duzue: <http://anesarrindahaurkrossa.weebly.com/>.

*Haur krosetako antolatzaileak*

## Lasturko Mendi Martxa Zirkuituaren lehen proba, martxoaren 8an

I. Lastur Mendi Martxa Zirkuitua burutuko da aurten. Bi probaz osatuta egongo da, eta lehenbizikoa martxoaren 8an ospatuko da –Martxa Handia ekaineko azken asteburuan izango da–.

Martxoaren 8ko Neguko Mendi Martxa 7:30ean hasiko da (Lasturko plazatik) eta bi ibilbide izango ditu: 28 kilometrokoa bata eta 15 kilometrokoa bestea. Zirkuitua osatuko duten martxa hauek oinez edo korrika egin ahal izango dira, eta bizilagun guztiei zuzenduta daude. Ez dute lasterketa izatera izango, eta Lasturko ingurunez gozatzeko aukera polita izango dela nabarmendu dute Lastur Mendi Martxa Taldeko arduradunek. Izen-ematea zabalik dago jadanik [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian. Informazio gehiagorako: [www.lasturmendimartxa.com](http://www.lasturmendimartxa.com).



## Martin Hernandezek erakustaldi bikainekin abiatu du urte berria

Urtarrilaren 11n Lasarten jokatu zen Donostiako Nazioarteko Krosaren 60. edizioa eta Martin Hernandez Beitia korrikalari gazteak erakustaldia eskaini zuen infantil mailako lasterketan: 1. postuan iritsi zen helmugara (13:38ko denborarekin). Bere kategoriako azkarrena izan zen, eta berean, bi aste beranduago Elgoibarren ospatutako Juan Mugertza Nazioarteko Krosetan ere. Mintxeta Atletismo Taldeko (Elgoibar) kidea den Debako gaztea lehenengoa izan zen infantiletan helmugaratzen, 10:52ko denborarekin.

Otsailaren 15ean Hernanin jokatuako eskolarteko Gipuzkoako Kros Txapelketan ere garaile izan zen infantil mailan. Zorionak!!

## “Herritarron artean erabakiko dugu gure herrian hondakinak biltzeko sistema egokiena zein izango den”

Herri galdeketa batekin amaituko den parte-hartze prozesua abiatu du Udalak



“Denon artean %60ra! Hobetzeraz goaz!”. Horixe da Debako Udalak otsailean abiatutako informazio eta eztabaida prozesuaren leloa. Deban, gutxienez %60ko birziklatze tasara iristea da erronka, eta horretarako hondakin biltzeko sistema egoki bat ezarri nahi dute, denon artean eztabaidatu eta adostua izango den biltzeko sistema bat, hain zuzen ere.

Urtarrilaren 28an egindako agerraldian gogorazi zuten bezala, hondakinaren gaiarekin kezkatuta, eta “arduraz” jokatzeko helburuarekin, duela zenbait hilabete Debako Udaltzako aho batez onartu zuen hondakin biltzeko sistema aldatu beharra dagoela, %60ko birziklatze tasa lortzeko duen sistema bat ezarri. “Hondakinak nahasita jasotzeko garaia bukatu dela ulertzen dugu eta birziklatzea hobetzeak denon ardura izan behar du”, aipatu zuten. Norabide horretan, azken urteotan hondakin kudeaketa egokiagoa abian jartzeko hainbat urrats egin ditu Udalak, baita herritar ugari ere -tup-wareak, kontzientziazio kanpainak, konposta...-.

### Hondakin %25a jasotzen da sailkatuta

Herritarrok sortzen ditugun hondakin %25a jasotzen da sailkatuta gaur egun, baina hondakin sailkatze tasa hori %60ra igotzea da orain helburua. Hori lortzeko, Debako Udalak aho batez erabaki du hondakin biltzeko sistema erabakitze prozesua udalean ordezkariak duten alderdi guztien artean adostea. Eta prozesuak herritarren informazio eta hausnarketarako parte bat ere izango du. Izan ere, herritarrekin partaidetza prozesu bat abiatu dute eta prozesuaren amaieran herri galdeketa bat egingo da.

Aipatutako prozesua martxan jartzea eta prozesuaren kudeaketaz arduratzeko Hondakin Batzorde bat sortu da

Udalan ordezkariak duten alderdi guztiekin: Alternatiba Eraikitzen, EAJ, EA, Independentiak, Ezker Anitza, Aralar eta Itziar Herria Sortzen. Batzorde horren koordinazioa eta prozesu parte-hartzailearen diseinu metodologikoa Aztiker Soziologia Ikerguneko bideratzaileen esku egon da eta dago, “prozesua ahalik eta modu objektibo eta gardenean planteatu eta aurrera eraman ahal izateko”.

### Informazio eta eztabaida prozesua martxan dago

Herritarrentzat antolatutako saio ezberdinak otsailean abiatu dira. Hauxe izan da helburua: informazio zabala eta osatua herritarren esku jartzea, eta herritarrei hitza eman eta talde lanean azterketa eta proposamenak egitea. Saio horietan egungo egoera aztertu nahi izan dute, baita hondakin biltzeko sistema ezberdinen inguruko informazioa eman ere -zer aukera dauden, zeintzuk diren sistema bakoitzaren ezaugarri nagusiak, indarguneak eta ahulguneak aztertu...-. Otsailaren 24, 26 eta 27an egingo dira azkeneko hitzorduak eta herritarrei horietan aktiboki parte hartzeko gonbitea luzatu diete udal ordezkariak. “Prozesu honetan egingo dugun gogoeta eta sorkuntza lanaren ondorioz erabakiko dira herri galdeketa egongo diren aukerak. Informazioa eskuratu eta eztabaidatu ondoren, herritarrok erabakiko dugu Deban hondakin biltzeko sistema egokiena zein izango den. Denon iritzia balio du”.

**Parte-hartze prozesua herri galdeketa batekin amaituko da, datorren martxoaren 29an (igandea).** Udaletik jakinarazi dutenaren arabera, herritarrekin egindako saio horien ostean, eta egindako azterketa eta lan proposamenak oinarri hartuta, Hondakin Batzordearen lana izango da galdeketa hori prestatzea.

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



# Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du Itziar auzo udal bilakatzeko dekretua

Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 26-29 artikuluei jarraikiz, Itziar toki entitate txikiari nortasun juridikoa ematen dion foru dekretua onartu zuen Foru Gobernuak urtarrilaren 27an. "Itziar herriaren aldarrikapen historikoa da haien lurraldea modu deszentralizatuan kudeatzeko aukera eta tresnak izatea eta gaurko Diputatuen Kontseiluan onartu dugun dekretuak aldarrikapen horri bide ematen dio", nabarmendu zuen Larraitz Ugarte Gobernuaren bozeramaleak.

Debako Udalak iazko ekainean abiatu zuen Itziar toki entitate txikia eratzekeo prozesua. Auzo udala sortzeko txostena onartu zuen lehenbizi Udaltzako, eta hurrengo urratsa izan zen auzo udalaren lurralde eremuko biztanleek akordio horri buruz duten iritzia jasotzea. Horretarako, Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoia, Itxaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari, Itziar auzo eta Itziar kaskoko biztanleen iritzia jaso zituen azaroaren 30ean. Galdera bakarrari eman behar izan zioten erantzuna: "Debako Udaltzako Itziar Auzo Udala eratzea onartu du. Ados zaude?". Baiezkoak babes handia jaso zuen; guztira 614 pertsonak eman zuten botoa, eta horietako %95,92k babestu zuen proiektua. Parte-hartzea %72koa izan zen.

Iazko azaroan lortutako emaitzekin, herritarrek proiektuarekiko adostasuna agertu zuten, eta prozesu horren emaitzari izaera juridikoa ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku gelditu zen. Bi hilabete hauetan, Foru Aldundiak espedientea aztertu du eta 2003ko martxoaren

17ko foru arauak ezarritako baldintza formalak eta materialak betetzen dituela egiaztatu du. Ondorioz, Larraitz Ugartek azaldu zuen Diputatuen Kontseiluak onartu duen foru dekretuak "bide ematen" diola "itziararren borondateari".

Foru Aldundiak azaldu duenaren arabera, dekretu horren arabera, Itziar toki entitateak nortasun juridiko propioa dauka. 48 kilometro karratuko lurralde eremua dauka eta ondorengo auzoak hartzen ditu bere baitan: Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoia, Itxaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari, Itziar auzo eta Itziar hirigunea.

Gobernu organoei dagokienez, auzo-alkatza (kide bakarrekoa) eta auzo-batzordea (bost kidekoa) izango ditu. Hala ere, datozen udal hauteskundeak burutu bitartean, batzorde kudeatzaile batek zuzenduko du eratu berri den toki entitate txikia eta Foru Aldundiari dagokio hori osatuko duten kideak izendatzea.

Aurrekontua: Dekretu honek ezarzen du Debako Udalak urtero egingo diola ekarpen ekonomiko bat Itziarri. Itziarrek pixkanaka

hartuko ditu kompetentziak, hiru fasetan, eta, fase horien arabera egokituko da Debako Udalak Itziarri eman beharreko aurrekontuaren zenbatekoa. Dekretu honetan aurreikusten da Itziarrek bost urtetan hartuko dituela dagozkion kompetentzia guztiak.

Larraitz Ugarteren esanean, "eredugarria izan da Debako Udalaren jarrera, udal honek kudeatzen dituen herritar multzo esanguratsu baten iritzia eta sentimendua modurik demokratikoenean bideratzea lortu duelako".




## Aparkalekuak eta berdegunea Agirretxerako proiektuan

Pasa den urtarrilaren 16an Agirretxeko aparkaleku eta berdeguneen proiektua aurkeztu zuen Debako Udalak. Eta, aurkezpenaren ostean, hainbat egunez proiektua ikusgai egon zen udaletxean, herritarrek hori bera ikusi eta euren ekarpenak egiteko aukera ere izan zezaten.

Herrigunean, frontoiaren eta kiroldegia arteko eremuan kokatzen da proiektua, eta Udalak nabarmendu du "herrian dagoen behar bati erantzun nahian" egindako proiektua dela. "Erabilpen gabeko lurzoru bati balio erantsia emango zaio, beteko dituen hurrengo hiru helburu nagusi hauekin: aparkaleku berriak eskaintzea herritarrei, kiroldegia erabiltzeko bultzatzea eta Agirretxerako aisialdi gune bat eraikitzea".


Aparkalekuei dagokienez, lau solairutan banatuta, 146 garaje aurreikusten dira: 88 irekiak (gutxienez 22 udal errotaiozkoak izan daitezela nahi dute) eta 58 itxiak.

Eraikinak igogailu publikoa izango du, eta gaur egungo frontoiko igogailuarekin batera, herriko plazatik zuzenean bermatuko litzateke kiroldegirako lotura. Udalaren iritziz, bestalde, "errotaziozko aparkalekuak ere kiroldegi parean egoteak erabilera sustatuko du".



Eraikinaren gainean 2.000 metro karratu inguruko gunea sortzea aurreikusten da, eta Udalak bi proposamen ditu eremu horretarako: lorategia edo egoteko gunea, batetik, eta ume edota gazteentzako jolastoki eta nagusien ariketa gune bateratua bestetik. Dena den, bi proposamen horiek luzatu baditu ere, herritarrek aukera dute egoki ikusitako besteren bat proposatzeko. Udalak azaldu du, hain zuzen ere, herritarren iritzien arabera erabakiko dela lur eremu horren erabilera.

Proiektu osoa aparkalekuaren lagapenak finantzatzeko du. Lagapen sistemapean aparkalekuak eskaintzearekin, Udalak jarraituko du lur zoruaren jabea izaten. Proiektuaren nondik norakoak [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian ikus daitezke.



## Agenda

**Otsailak 21, larunbata**

-12:00. **Kalean Kantuz**, herriko kaleetan zehar.

**Otsailak 24, asteartea**

-19:00. **Korrika Batzordearen** bilera, Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan.

**Otsailak 24-25-26**

-Hondakinak biltzeko sistema erabakitzeko **parte-hartze prozesuko saioak**. Ikus 16. orrialdeko informazioa.

**Otsailak 27, ostirala**

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

**Martxoak 1, igandea**

-10:00. **Ibilketa Nordikoa**, Debako mendi inguruetan. Irteera Turismo Bulegoan. Informazioa: [www.deba.net](http://www.deba.net)-en.

-11:30. **II. Manuel Mateos Memoriala krosa**.

-17:00. **Ipuin kontaketa**. Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko da. 17:00etan Haur Hezkuntzako haurrentzat; 17:45ean, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoentzat; 18:30ean, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoentzat.

**Martxoak 3, asteartea**

-19:00. **Zuhatza Euskara Elkartearen Urteko Batzar Orokorra**.

**Martxoak 7, larunbata**

-10:15. **Txirindularitza lasterketa**. (XXVII. Deba Saria-kadeteak).

**Martxoak 8, igandea**

-7:30. **I. Lastur Mendi Martxa Zirkuitua** burutuko da (Lasturko plazatik abiatuta). Ikus informazioa 15. orrialdean.

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin-Kurutx M.T. eta Luzaro ikasteak antolatuta. Ibilaldi neurtua (goiz pasa).

-14:05. **Txori kantariak**. La Lubina elkartek antolatuta, Debako zumardian.

**Martxoak 11, asteazkena**

-19:00. **Euskal Memoriako Iñaki Egañaren hitzaldia eta solasaldia**. Agirre jauregiko ispiluen gelan.

**Martxoak 21, larunbata**

-XLVII. **Anes Arrinda Haur Krosa**. Ikus informazioa 15. orrialdean.

-13:00. **Debako Musika Bandaren kontzertua**, Elizako klaustroan.

**Martxoak 23, astelehena**

-20:00. **Korrika iritsiko da Debara**. Egitarau berezia egongo da hitzorduaren bueltan.

## Lehiaketak

-**Zubeltzu VI. Bertso-paper sariketa**, Debako Udalak eta Zuhatza Euskara Elkartek antolatuta.

Martxoaren 27a arte aurkeztu daitezke lanak, eta sari bana-keta apirilaren 17an egingo da, Agirre jauregiko ispiluen gelan. Informazioa eta oinarriak: [www.deba.net](http://www.deba.net)-en.

-**Cárdenas Fundazioak eta Debako Udalak antolatutako II. literatur lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna: mar-

txoak 31. Informazioa eta oinarriak: [www.deba.net](http://www.deba.net)-en.

-**VII. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa**.

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu besteez. Informazioa eta oinarriak: [www.elkar.com](http://www.elkar.com) atarian.

## Martxoaren 8aren bueltan

-**Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan** hainbat ekimen egingo dira herrian.

Martxoaren 7an (larunbata) **"Bidea urratuz" bertso saioa** izango da Agirre jauregiko ispiluen gelan, 19:00etan. Igandean, berriz,

**"Munduko arrozak"**, arroz desberdinen dastaketa egingo da plazan (Dunamis elkartearen eskutik), 12:00etan. Eta 13:00etan elkarretaratzea deitu dute Foruen plazan **"Martxoak 8, emakumeen indarra"** lelopean.

## Ikastaroak

-**KZguneak** goizeko ordutegia izango du martxoan eta 9:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Hainbat ikastaro eskainiko dira: sare sozialak,

Indargarri Sarea Oinarrizko Internetarentzat, Skype... Informazio gehiago: [www.kzguna.net](http://www.kzguna.net) atarian edo 943 02 36 29 telefono zenbakian.

## "Oztipoen gainetik, euskaraz biziko gara"

-Euskaraz bizitzeko traben kontra manifestazioa egingo dute otsailaren 28an (larunbata), Donostian. 17:30ean hasiko da, Gipuzkoa Plazan. Kontseiluak eta UEMAK egin dute deialdia. Euskaraz bizi nahi dutenei gobernuek "Damoklesen ezpata" jartzen dietela salatuko dute eta "Oztipoen gainetik, euskaraz biziko gara" lelopean burutuko da mobilizazioa.



Manifestazioa  
Otsailaren 28an, Donostian  
17:30ean, Gipuzkoa Plazan

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **martxoak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 20, 21, 22.**  
**martxoak 2, 3, 4, 5, 20, 21, 22.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201  
BURGOA ZUAZO: 667 338 890  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 7 eta 14

BURGOA ZUAZO: otsailak 21 eta 28  
martxoak 21

9:30 - 13:30





**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Entesa Pagada Nº 2/05/049  
NIVEL 2



**Hazitik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telef.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatz**

943 191 383  
berriketan@zuhatza.com



**AUKERA INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**API** 447



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Higiezin zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**API**  
Nº. 379



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plaza

**ISABEL FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA  
943 029 186

**AZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**  
**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**sasoiiko**

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknioterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



# 19.<sup>æ</sup>korrika EUSK AHAL DUN!

Urepeletik Bilbora  
2015eko martxoaren 19tik 29ra

*Debatik martxoaren 23an igaroko da arratsaldeko 8etan. Lekukoa eraman edo ekimenen bat antolatu nahi baduzu zatoz Korrika Batzordera.*

*Batzordea dagoeneko lanean hasi da. Zatoz zu ere norbanako edo talde bateko ordezkari gisa zure ekarpena egitera.*

*Datorren bilera otsailaren 24an izango da, 19:00etan Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan.*

*Eskerrik asko!*

## Zuhatza Euskara Elkartea: Urteko Batzar Orokorra

- Gai ordena:
  - 2014ko ekimenen balorazioa eta balantze ekonomikoa.
  - 2015eko egitasmo berriak eta aurrekontua
  - Ekarpenak eta iritziak.

- Eguna: Martxoak 3, asteartea.

- Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

- Tokia: Zuhatza elkartearen bulegoan ( Ifar kalean)



Kontaktuak: ( [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) edo 943 191 383 telefonoa)  
Besterik gabe, batzarrean elkar ikusiko dugulakoan agurtzen zaitugu.